
	HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA	ARAUA	
	HOBEKUNTZA PLANAK, HAIEN EZARPENA ETA JARRAIPENA BALORATZEKO ADIERAZLE SISTEMA	NM07120202	
		1. ERREB.	Or. 1/17

HOBEKUNTZA PLANAK, HAIEN EZARPENA ETA JARRAIPENA BALORATZEKO ADIERAZLE SISTEMA

PRESTATUA: Ikuskatzailea 22/11/12	ONETSIA: J.R.E.D. Zerbitzuko zuzendaria 26/11/12
 Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	

SARRERA

- Zer da hobekuntza planak, haien ezarpena eta jarraipena baloratzeko adierazle sistema?
- Aginduzko izaera dute?
- Nola agertzen dira adierazleak?
- Zein da adierazle sistemaren egitura?
- Nola erabil daitezke?
- Zehatzak dira adierazleak?

HOBEKUNTZA PLANAK, HAIEN EZARPENA ETA JARRAIPENA BALORATZEKO ADIERAZLE SISTEMA

I.- HOBEKUNTZA PLANAREN DISEINUA

1. Ikastetxeak aztertu ditu ebaluazio diagnostikoaren txostenak eta haien emaitza akademikoak, eta egin du diagnostiko fidagarria?
 - 1. adierazlea: *Ikastetxearen inplikazioa ebaluazio diagnostikoaren emaitzen eta emaitza akademikoen azterketan*
 - 2. adierazlea: *1. gaitasun mailan dauden ikasleen egoeraren azterketa*
 - 3. adierazlea: *Ikasleen banaketaren azterketa, mailaz maila: maila bakoitzean zenbat ikasle dauden*
 - 4. adierazlea: *Itemen azterketa, ikastetxeko ikasleendako zailtasun-mailaren arabera, proba bakoitzean*
 - 5. adierazlea: *Ikastetxearen egiazko beharren diagnostikoa.*
2. Hobekuntza plana teknikoki ongi diseinaturik dago?
 - 6. adierazlea: *Ikastetxeko proiektu estrategiko batean/hezkuntza proiektu batean txertatzea*
 - 7. adierazlea: *Hobekuntza planaren jarraipena*
 - 8. adierazlea: *Plana, modu errealista, erraz, eraginkorrean eta emaitzak egiaztatzeko gaitasunez diseinatua*

II.- HOBEKUNTZA PLANAREN NEURRIAK

3. Curriculumeko eta didaktikako neurriak (programazioak, baliabideak, ikuspuntu metodologikoak, ebaluazioak...)
 - 9. adierazlea: *Programazioan gaitasunen ikuspegia bilatzea (jakintzak aplikatzea...)*
 - 10. adierazlea: *Metodologian gaitasunen ikuspegia bilatzea*
 - 11. adierazlea: *Ebaluazioan gaitasunen ikuspegia bilatzea*
 - 12. adierazlea: *Irakurketaren eta idazketaren trataera arlo guztietan*
 - 13. adierazlea: *Arlo guztietan komunak diren gaitasun batzuk zeharka sartzeari: ikasten ikastea, gaitasun digitala, norberaren autonomia eta ekimena, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna, etab.*
4. Antolaketa neurriak (koordinazioak, taldekatzeak, errefortzuak...)
 - 14. adierazlea: *Koordinazioa zikloan, kurtsoan, departamentuan, etapan, etapa artean, etab.*
 - 15. adierazlea: *Taldekatzeak, aniztasuna eta porrot arriskuan dauden ikasleak hobeki hartzeko.*
 - 16. adierazlea: *Errefortzuak antolatzea, aniztasuna eta porrot arriskuan dauden ikasleak hobeki hartzeko.*

5. Tutoretzekin, balioekin, familiekin eta inguruarekin zerikusia duten neurriak (familien inplikazioa, inguruarekiko koordinazioa, lehentasuna izanen duten balioak...).
 - 17. adierazlea. *Ikasleen jarraipen pertsonalizatua, tutoretzaren bidez*
 - 18. adierazlea. *Hezkuntza balioak lehenestea*
 - 19. adierazlea. *Ikasgelako bizikidetza eta giroa hobetzea*
 - 20. adierazlea. *Familiak seme-alaben hezkuntza prozesuetan inplikatzea*
 - 21. adierazlea. *Inguruarekiko koordinazioak (osasun etxea, oinarritzko gizarte zerbitzuak, udal liburutegia, eskolari lagun diezaioketen GKEak, boluntarioak, etab.)*
6. Irakasleen irakasteko gaitasunak hobetzearekin zerikusia duten neurriak (etengabeko prestakuntza...).
 - 22. adierazlea. *Ikastetxeko prestakuntza, irakasleek irakasteko gaitasunak hobe ditzaten*
 - 23. adierazlea. *Irakasle taldeen bilerak (departamentuen, zikloen, irakasle taldeen, "ad hoc" lantaldeen bilerak), beren lana irakasteko gaitasunak hobetzearen ikusmoldetik bideratuta*

III.- BILAKAERA ETA EMAITZAK

7. Egiaztatzen ari dira hobekuntzak emaitza akademikoetan eta ebaluazio diagnostikoan?
 - 24. adierazlea. *Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen eta emaitza akademikoen bilakaera egiaztatzeke sistema eta motibazioa*
8. Egiaztatzen ari dira hobekuntzak ikasleen aztura eta balioetan?
 - 25. adierazlea. *Ikasleen azturen, balioen eta jarrerren hobekuntza egiaztatzeke sistema eta motibazioa*

IV.- JARRAIPENA, BALORAZIOA ETA HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

9. Zuzendaritzak plana jarraitzea eta baloratzea
 - 26. adierazlea. *Plana aurrez ikusitako egutegiaren arabera garatzea*
 - 27. adierazlea. *Aurrez ikusitako jarduera eta neurri bakoitzaren garapenaren trazabilitatea, plana benetan hedatzen den edo noizbait eteten den egiaztatzeke*
 - 28. adierazlea. *Hobekuntza planean aurrez ikusitako helburuen egiaztapena*
10. Zuzendaritza taldearen balorazioak: ikastetxeko jardunbiderik onenak eta indarguneak.
 - 29. adierazlea. *Balorazio egokiak eta oinarrituak hobekuntza planaren, haren ezarpenaren eta zuzendaritza taldeak plana garatzeko egindakoaren gainean.*
11. Hobekuntza proposamenak
 - 30. adierazlea. *Hobekuntza proposamenak izatea, epe labur eta ertainean*

SARRERA

Zer da hobekuntza planak, haien ezarpena eta jarraipena baloratzeko adierazle sistema?

Adierazle multzo zabala da, zernahi esparrutan antolatua. Esparru horiek prozesu hauei buruzkoak dira: hobekuntza plana prestatzea, hobekuntza planaren neurriak eta emaitzak, eta planaren jarraipena, balorazioa eta hobekuntza proposamenak egiteko proposamenak.

Lagungarria izan daiteke hobekuntza planak baloratzeko erantzukizuna duten pertsona guztiendako, bai ikastetxearen barnean egiten denean balorazioa (hobekuntza planen edo kalitatearen arduradunak, zuzendaritza taldeko kideak, ikasketaburuak, etab.), bai ikastetxetik kanpora egiten denean (ikusketzaileak, hobekuntza planak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko lanetan ari direnean).

Aginduzko izaera dute?

Adierazle multzo zabal honek ezin du aginduzko izaerarik izan, ikastetxeek autonomia dutelako hobekuntza planen edukia eta forma erabakitzeak. Egoera zehatz bati erantzun behar diote (emaitzak, ikasleen zailtasunik azpimarragarrienak, irakasleak, familien laguntza, Hezkuntza Departamentuak bultzatutako programak, etab.).

Adierazle batzuk ikastetxe jakin batean ezartzeko modukoak izanen dira eta beste batzuk, berriz, aurrekoak ez bezalako ezaugarriak dituzten ikastetxeetan erabiltzekoak. Beraz, ebaluatzaile bakoitzak egoera zehatz baterako esanguratsuak diren adierazleak aukeratuko ditu.

Nola agertzen dira adierazleak?

Adierazleek formatu hau dute: adierazlea aipatzen da; jarraian, "irizpidea" izeneko atalean adierazlearen zentzua azaltzen da eta adierazlearen lorpenaren mailaketa aurkezten da, izan daitezkeen benetako egoerak ulertzeko balio duena. Oro har, mailaketa hau ezartzen da bi irizpide hauek kontuan hartuz: batetik, adierazleak planteatutako egoeran tartekatutako pertsona eta egitura kopurua, eta bestetik, praktikara eramaten ari den edo, aitzitik, "paper" hutsa den.

Zein da adierazle sistemaren egitura?

Hogeita hamar adierazleak lau multzo handi hauetan antolatu dira:

I.- Hobekuntza planaren diseinuari dagozkion adierazleak	II.- Planean sartutako balizko neurriei dagozkien adierazleak
Batetik, planaren diseinuaren alde aurretiko fasekoak, hau da, kanpo eta barne ebaluazioen emaitzen azterketarekin eta ikastetxearen zailtasun eta arazo azterketarekin lotutakoak, planaren diseinurako alde aurretiko urrats modura, eta bestetik, planaren ezaugarri teknikoak: zehatza den, operatiboa den, adierazleak dituen, etab.	Hobekuntza planean sar daitezkeen balizko neurrien sorta sartzen da; neurri horiek mota askotarikoak izan daitezke, hala nola, curriculumekoak, didaktikoak, antolaketakoak, eta tutoretzekin, balioekin, familiekin eta eskola ingurunearekin zerikusia dutenak. Azkenik, irakasleek irakasteko gaitasuna hobetzeari dagozkion neurriak sartzen dira.
III.- Bilakaerari eta emaitzei dagozkien adierazleak	IV.- Jarraipenari, balorazioari eta hobekuntza proposamenei dagozkien adierazleak
Batetik, ikasleen emaitza akademikoetan eta ebaluazio diagnostikoetan aldaketarik gertatzen ari diren egiaztatzeko aukera ematen dutenak, eta bestetik, hobekuntza planeko azturetan, jarreretan eta balioetan gertatutako aldaketak.	Neurrien ezarpen-maila aztertzei aukera ematen dutenak eta plana gainbegiratzerakoan egiten diren balorazioei eta hobekuntza proposamenei dagozkienak.

Nola erabil daitezke?

Hobekuntza plana ebaluatzeko unean erabiltzeko prestatu badira ere, plan horiek diseinatzeko ere baliagarriak izan daitezke, haiek irakurtzeak hobetzeko ildo eta eremuak iradoki ditzakeelako.

Adierazle bati dagokionez, ikastetxearen garapen-maila zein den identifikatzerakoan, zuzendaritza taldeak ikastetxeak eman dezakeen "ondoko urratsa" ere (hobekuntza proposamena) antzeman dezake, ezarritako graduazio-maila aztertuz.

Zehatzak dira adierazleak?

Adierazle sisteman biltzen dira soilik ikastetxeetako egoerarik ohikoenei buruzkoak, hobekuntzari edozein ikusmoldetatik abiatu egin nahi zaionean: didaktikoa, antolaketakoa, familien inplikazioa dutenak, balioak lantzekoak, etab. Ezin da izan, beraz, zehatza eta oso zaila da ikastetxeen askotariko errealitatea biltzea.

Gainera, modu orokorrean zerrendatzen dira, ikastetxeen errealitatearen arabera zehaztapenak posible egiteko. Ikastetxeen hobekuntza planek garapen-maila desberdinak dituzte. Batzuetan planak prestatzen ari dira eta neurriren bat errealitatean ezartzen ahalegintzen dira. Beste batzuetan, berriz, zenbait urte daramatzate planak ezartzen, ebaluatzen eta hobetzen.

HOBKUNTZA PLANAK, HAIEN EZARPENA ETA JARRAIPENA BALORATZEKO ADIERAZLE SISTEMA

I.- HOBKUNTZA PLANAREN DISEINUA

Zortzi adierazle erabiliz ibilbidea egiten da jakiteko nola dagoen diseinaturik hobekuntza plana. Hasteko, kanpo zein barneko ebaluazioek emandako emaitzak aztertu eta ikastetxearen diagnostikoaren barnean sartzen dira. Horixe da hobekuntza plan on baten abiapuntua. Egoeraren diagnostiko on bat gabe, zaila izanen da hobekuntzako neurri eragileak ezartzea. Gainera, planaren zehaztapen-maila zein den aztertzen da, diagnostiko horretatik abiatuz: argia, eragilea, zorrotza... den.

1.- Ikastetxeak aztertu ditu emaitza akademikoak eta ebaluazio diagnostikoaren txostenak, eta egin du diagnostiko fidagarria?

1. adierazlea: *Ikastetxearen inplikazioa ebaluazio diagnostikoaren emaitzen eta emaitza akademikoaren azterketan*

Adierazle honek atazaren jarrerazko alderdian eragiten du gehien, baina horregatik ez da garrantzi gutxiagokoa. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura:

- ▶ Gutxieneko maila: irakasleak soilik, bere kasa, aztertzen ditu emaitzak
- ▶ Maila baxua: bi irakaslek edo gehiagok emaitzak modu asistematikoa eta anekdotikoan aztertzen dituzte.
- ▶ Maila ertain baxua: bi irakaslek edo gehiagok emaitzak planteamendu sistematiko jakin batekin aztertzen dituzte, ikastetxeko antolaketa egituretatik kanpo bada ere (zikloak, departamentu didaktikoak, hezkuntzako laguntza unitatea, orientazio departamentua, etab.)
- ▶ Maila ertain altua: zenbait irakaslek emaitzak ikastetxeko antolaketa egituraren barnean aztertzen dituzte (zikloak, departamentu didaktikoak, hezkuntzako laguntza unitatea, orientazio departamentua, etab.) Era berean, lantaldeak egin daitezke ataza honetarako. Gainera, emaitza akademikoekin parekatzen dira.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, koordinazio pedagogikorako batzordea, ikasketa burutza eta zuzendaritza inplikatzeko dituzte.

2. adierazlea: *1. gaitasun mailan dauden ikasleen egoeraren azterketa*

Multzo honendako bada atal berezi bat, ageriko zailtasunak dituelako eta hobekuntza planak talde honetako kideak kontuan hartu behar dituelako. Kalitatea hobetzeko plan batek proposamenen bat behar luke ikasle horiekin lana nola egin behar den zehazteko. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da irizpide honen arabera azterketa mota hau egin.
- ▶ Maila baxua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz, baina modu ezkor batean (ez dago ezer eginik, soilik egiaztatzen da).
- ▶ Maila ertain baxua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz; esku hartu nahi da, baina nola egin behar den jakiteko ez da ideia zehatzik antzematen.
- ▶ Maila ertain altua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz; esku hartu nahi da eta badira nola egin erakusten duten proposamen zehatzak.
- ▶ Maila altua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz; esku hartu nahi da eta badira nola egin erakusten duten proposamen zehatzak. Neurri orokorrez gainera (laguntzen antolaketa, oinarrizko gaitasunen bat modu trinkoan lantzea, lana koordinaturik egiteko konpromisoa...), 1. mailan dauden ikasle guztiekin bada bana-banako plana, gutxienez.

3. adierazlea. *Ikasleen banaketaren azterketa, mailaz maila: maila bakoitzean zenbat ikasle dauden*

Adierazle honetan ez dira soilik gaitasunean eskaturiko gutxienera iristen ez diren ikasleak kontuan hartzen; ikasle guztiak aztertzen dira. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxienerako maila: ez da irizpide honen arabera azterketa mota hau egin.
- ▶ Maila baxua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz, baina modu konformistan (ikasleen arabera da, ez ikastetxearen planteamenduaren arabera).
- ▶ Maila ertain baxua: azterketa hau egin da irizpide hau kontuan hartuz; esku hartu nahi dela antzematen da, baina nola egin behar den jakiteko ez da ideia zehatzik antzematen.
- ▶ Maila ertain altua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz; esku hartu nahi da eta badira nola egin erakusten duten proposamen zehatzak. Gainera, proposamenak berritzaileak dira: antolatze modu berriak, curriculumaren egituraketa, bana-banako planak ikasle guztiendako bakoitzaren gaitasunen arabera, etab.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, gaitasun batean edo gehiagotan adierazle neurgarriak dituzten konpromisoak eta helburuak ezartzen dira.

	1. maila	2. maila	3. maila	3+ maila
Gaur egungo egoera	ikasleen %	ikasleen %	ikasleen %	ikasleen %
Espero den egoera (ikasturte batean, bi ikasturtetan, etab.)	ikasleen %	ikasleen %	ikasleen %	ikasleen %

4. adierazlea: *Itemen azterketa, ikasleendako zailtasun-mailaren arabera, proba bakoitzean*

Probetako galderak Nafarroan eta ikastetxean asmatu dituzten ikasleen ehunekoak alderatuz, informazio asko atera daiteke non esku hartu behar den jakiteko. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxienerako maila: ez da irizpide honen arabera proba bakar batean ere azterketa mota hau egin.
- ▶ Maila baxua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz, baina modu mekaniko eta deskribatzailean, curriculumeko perspektibarik gabe.
- ▶ Maila ertain baxua: azterketa egin da irizpide hau kontuan hartuz eta indarguneak eta ahuleziak zein diren zehaztu da. Bi puntu horiek ondoko aldagai hauen bidez lotzen dira: irakaskuntza, metodologia, programazioa, ebaluazioa, etab. Antzematen da esku hartzeko asmoa, baina ez dago nola egin erakusten duten ideia zehatzik.
- ▶ Maila ertain altua: aurrekoaz gainera, irizpide hau kontuan hartuz egin da azterketa eta esku hartzeko asmoa dagoela antzematen da.
- ▶ Maila altua: azterketa zorrotza egiten da eta galdera bakoitzaren azpian zer gaitasun dagoen zehazten da eta gogoeta egiten da ikasle mota desberdinetarako zailtasun-mailaren gainean eta nola jokatu erakusten duten proposamen zehatzak daude.

5. adierazlea. *Ikastetxearen egiazko beharren diagnostikoa.*

Ikastetxearen diagnostikoa ez da soilik ebaluazio diagnostikoaren emaitzak eta emaitza akademikoak baloratzea. Aztertuz gero, bada ikastetxearen benetako beharren diagnostiko ona ematen digun askoz ere barneko informazio gehiago (esate baterako, gurasoen inplikazio txikia, arreta eta motibazioko arazoak, lan aztura eskasak, testuen ulermen-maila baxua, buruan ordena gutxi izatea, etab.). Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxienerako maila: ez da inoiz ere iturri hau erabiltzen. Ez da diagnostikorik egiten, ez formalik, ez informalki.
- ▶ Maila baxua: formalki erabiltzen da (aipatzen da, hari buruz hitz egiten da...), baina benetan ez du inolako eraginik hobekuntza ildoetan.

- ▶ Maila ertain baxua: iturri hau kontuan hartzen da, parte batez. Ez dago benetako beharren diagnostiko sistematiko eta zorrotzik. Hainbat behar (adibidez, diziplina arazoak, ikasleen motibazio baxua, etab.) biltzen dituen informazioa, baina loturarik gabe.
- ▶ Maila ertain altua: iturri honetako informazioa egoki erabiltzen da. Bada benetako diagnostikoa. Ikastetxeak badaki zein diren bere beharrak eta agiriren batean jartzen ditu.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, ikastetxeak diagnostikorako metodologia zorrotza eta tresnak erabili ditu, hala nola, Ishikawaren arantza, AMIA, etab.

2.- Hobekuntza plana teknikoki ongi diseinaturik dago?

6. adierazlea. *Ikastetxeko proiektu estrategiko batean/hezkuntza proiektu batean txertatzea*

Urteko planean hobekuntza lerro bat edo gehiago biltzen badira ere, ezin hobea litzateke lerro horiek zenbait urtetarako prestatutako plan zabalago baten barnean sartuko balira (esate baterako, plan estrategikoan, zuzendaritza proiektuan, hezkuntza proiektuan edo ikastetxean indarrean dagoen plangintza instituzionalerako edozein agiritan). Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da inoiz ere iturri hau erabiltzen. Ez da esaten zein proiekturi lotzen zaion. Elkarren artean loturarik ez duten urteko neurriak dira.
- ▶ Maila baxua: formalki erabiltzen da (aipatzen da, hari buruz hitz egiten da...), baina benetan ez du inolako eraginik hobekuntza ildoetan.
- ▶ Maila ertain baxua: iturri hau kontuan hartzen da, parte batez. Hezkuntza proiektuko (edo beste edozein agiriko -plan estrategikoa-, etab.) alderdi jakin batzuk hartzen dira kontuan, baina ez dute ikusmolde estrategikorik. Era berean, kategoria honen barnean sartzen dira urtetik urtera modu bertsuan errepikatzen diren planak, hots, elkarren arteko koherentzia izan bai baina bilakaerarik ez dutenak.
- ▶ Maila ertain altua: iturri honetako informazioa egoki erabiltzen da. Bada plan estrategikoa (forma aldetik zeinahi egitura eta eskema izan ditzake), hobekuntza planei sendotasuna emateko balio duena, nahiz eta eguneraturik ez egon edo oso eraginkorra ez izan.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, ikastetxeak badu plan estrategiko eguneratu eta eraginkorra hezkuntza proiektuaren barnean.

7. adierazlea. *Hobekuntza planaren jarraipena*

Aurreko adierazlearekin estu lotuta, adierazle honen bidez jakin nahi da ba ote den jarraipenik urteko planen artean edo, aitzitik, urtero plan berri bat egitea erabakitzen den. Lortu nahi da planetan jarraipena eta bilakaera izatea, urtero hartutako neurriak sendotzeko. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da aurreko planik; beraz, ez dago jarraipenik.
- ▶ Maila baxua: bada aurreko plana, baina oraingoarekiko lotura eskasa da. Gehiago da araudiak eskatutakoa ikastetxeak bere egindakoa baino.
- ▶ Maila ertain baxua: aurreko planarekin lotuta dago, baina planteamendu zirkularra du progresioa baino gehiago (urtetik urtera errepikatzen den plana da, ia-ia).
- ▶ Maila ertain altua: aurreko planarekin lotuta dago eta ikuspegi progresibo eta sumatiboa du.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zenbait urtetarako prestatutako plan estrategikoari erantzuten dio.

8. adierazlea. *Plana, modu errealista, erraz, eraginkorrean eta emaitzak egiaztatzeko gaitasunez diseinatua*

Hobekuntza plan batek ezaugarri tekniko jakin batzuk izan behar ditu horien bidez eraginkorra eta praktikoa izateko. Errealista izan behar du: hau da, posible izan behar den aurrez ikusitako epean lortzea; erraza izanena da, ulergarria eta praktikoa eta formulazio erretoriko eta abstraktuetatik ihes egiten du. Azkenik, adierazle argi, zehatz eta unibokoak izanena ditu, aurrez ikusitako helburuak lortu diren egiaztatzeko balioko dutenak. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxienerako maila: ez dago hobekuntza planik.
- ▶ Maila baxua: bada teknikoki gutxi garatutako hobekuntza plana; asmo onen bilduma da, hedapen eta zehaztapen gehiagorik gabea.
- ▶ Maila ertain baxua: ildoak eta jarduerak zehazturik daude; eraginkorrak eta errealistak dira, baina haiek betetzen ote diren egiaztatzeko sistema ez dago ongi egituraturik (ez dago adierazlerik, etab.).
- ▶ Maila ertain altua: ildoak eta jarduerak zehazturik daude; eraginkorrak eta errealistak dira, eta haiek betetzen ote diren egiaztatzeko sistema ongi egituraturik dago (adierazleak, etab.).
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, emaitzen hobekuntzari begirako ikuspegia du.

II.- HOBKUNTZA PLANAREN NEURRIAK

Jarraian, kategorietan multzokatutako zenbait adierazle deskribatzen da. Hori hala izanik ere, kontuan izan behar da ikastetxeek autonomia dutela beren hobekuntza planetan sartuko dituzten neurriak aukeratzekoan, beren testuinguruen arabera arazoak konpontzearen. Horrenbestez, deskribapen hau behar denean erabiliko diren adierazle multzo bezala hartu behar da, adierazle horiek guztiak ez direlako nahitaezkoak ezta aginduzkoak ere.

3.- Curriculumeko eta didaktikako neurriak (programazioak, baliabideak, ikuspuntu metodologikoak, ebaluazioak...)

9. adierazlea. *Programazioan gaitasunen ikuspegia bilatzea (jakintzak aplikatzea...)*

Curriculumen aberasteko modu bat da gaitasunen aldetiko ikuspegi handiagoa ematea, hau da, ahalegintzea eta saiatzea ikasitakoa ikasleen buruetan modu esanguratsuan sar dadin eta ikasleak hori aplikatu dezan eguneroko bizitzako egoerak eta arazo praktikoko konpontzeko benetako bizitzako eta eskolako egoeretan. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxienerako maila: ez da ohiko programazioa aldatzen
- ▶ Maila baxua: ikusmolde hau programazioan sartzen da, baina irakasle bakoitzaren hautuaren arabera da. Esan daiteke unean uneko eta borondatezko jardura dela irakasleendako. Bigarren Hezkuntzan ez du eragiten departamentuetako programazio didaktikoan.
- ▶ Maila ertain baxua: bada ikuspegi hau zikloan, departamentuan eta abarretan sartzeko planteamendua, baina egiazkoa baino teorikoagoa da, oso modu orokorrean adierazten da eta ez da oso eraginkorra.
- ▶ Maila ertain altua: bada gaitasunen aldetiko planteamendua zikloko, departamentuko eta abarretako programazioetan, eta ikuspegi praktikoa eta benetakoa da. Praktikara eramaten da ikasgelan (ikasgelako programazioa eta ikasgelako jarduerak ikuspegi honekin).
- ▶ Maila altua: aurrekoa modu orokorrean aplikatzen da ikastetxe guztian.

10. adierazlea. *Metodologian gaitasunen ikuspegia bilatzea*

Inplikazioa, ikaskuntza esanguratsua, aplikazioa, etab. bilatzen dituzten ikasjarduerak eta ikuspegi metodologikoak diseinatzea da ikuspegi hau laguntzeko neurri ezin hobea. Bikoteka ikastea, atazen eta proiektu txikien bidez ikastea, ikaskuntza integratua, besteak beste, dira ildo horretan aurrera egiteko dauden moduetako batzuk. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ikuspegi hau ez da metodologian sartzen
- ▶ Maila baxua: formula metodologiko berriak bilatzen dituzten irakasleak sentsibilizaturik daude, baina oraindik ez dute inolako proposamen zehatzik adostu.
- ▶ Maila ertain baxua: unean-unean irakasleren bat hasi da ikuspegi metodologiko hauek erabiltzen.
- ▶ Maila ertain altua: bada zikloan, departamentuan eta abarretan ikuspegi metodologikoren bat sartzeko planteamendua eta irakasle kopuru garrantzitsu batek ikasgelan lantzen du.
- ▶ Maila altua: aurrekoa modu orokorrean aplikatzen da ikastetxe guztian. Gainera, onartutako ikuspegi eraginkortasuna kontrolatzen da eta jasotako datuetatik erabakiak hartzen dira.

11. adierazlea. Ebaluazioan gaitasunen ikuspegia bilatzea

Ebaluazio eta kontrol jarduerak diseinatzen badira baloratzeko ikasleek zer gaitasun duten landutako edukiak sakon ulertu eta egoerak ebazterakoan aplikatzeko, laguntza dute beste era baten urlertzea zer den bizitzarako ikastea eta zer ikasten segitzea. PISA eta PIRLS ereduak laguntzen dute ebaluatzeko modu hau ulertzen. Ebaluazio diagnostikoko probak ere erabilgarriak izan daitezke. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ikuspegi hau ez da ebaluazioan sartzen
- ▶ Maila baxua: ebaluazio modu berriak bilatzen dituzten irakasleak sentsibilizaturik daude, baina oraindik ez dute inolako proposamen zehatzik adostu.
- ▶ Maila ertain baxua: unean-unean irakasleren bat hasi da ebaluazio ikuspegi hauek erabiltzen.
- ▶ Maila ertain altua: bada zikloan, departamentuan eta abarretan gaitasunen araberako ebaluazioa sartzeko planteamendua eta irakasle kopuru garrantzitsu batek ikasgelan lantzen du.
- ▶ Maila altua: aurrekoa modu orokorrean aplikatzen da ikastetxe guztian.

12. adierazlea. Irakurketaren eta idazketaren trataera arlo guztietan

Irakurketa eta idazketa ezinbesteko tresnak dira edozein adimen lan egiteko, dela eskolakoak, dela eskolaz bestekoak. Ikasleen prestakuntzaren eta mendebaldeko kulturaren oinarria dira. Gaitasun hau ez dagokio soilik Hizkuntza eta Literatura irakasgaiari. Eskolako jarduera osoari eragiten dio. Alderdi hau garrantzitsua eta, ondorioz, Hezkuntza Departamentuak abian jarri du irakurketa eta idazketa hobetzeko plan instituzional bat. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da ikuspegi hau sartzen
- ▶ Maila baxua: irakurketa eta idazketa sartzen dira, baina hori egitea irakasle bakoitzaren hautua da. Esan daiteke jarduera sektorial eta borondatezkoa dela irakasleendako. Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko unean uneko jarduerak sar daitezke.
- ▶ Maila ertain baxua: zikloan, departamentuan eta abarretan sartzen da irakurketa eta idazketa, baina egiazkoa baino teorikoagoa da. Irakasleen prestakuntza motaren bat sartuta dago. Ikastetxeak badu irakurtzen zaletzeko plan bat, baina ez da kontrolatzen nola egiten den.
- ▶ Maila ertain altua: zikloan, departamentuan eta abarretan sartzen da irakurketa eta idazketa. Ikuspegi praktikoa eta benetakoa du. Ikasgelan lantzen da. Bada irakurketa plan sendoa (idazketa plana aukerakoa da). Ikastetxean bada irakurtzen zaletzeko plan bat eta ongi egiten da.
- ▶ Maila altua: gorago esandakoa modu orokortuan aplikatzen da ikastetxe guztian; bada irakurketa eta idazketa plana, sendotuta dago eta oso koherentea da. Era berean, bada irakurtzen zaletzeko plana. Bada plan horien jarraipenaz arduratzen den norbait. Zuzendaritza taldeak inplikazio-maila handia du.

13. adierazlea. Arlo guztietan komunak diren gaitasun batzuk zeharka sartzea: ikasten ikastea, gaitasun digitala, norberaren autonomia eta ekimena, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna, etab.

Badira zenbait gaitasun zeharkakoak direnak eta ikastetxeko arlo eta jarduera guztietan eragina dutenak; eskolakoak, osagarriak eta eskolaz bestekoak dira. Programazioetan sartuz gero gehiago lantzeko aukera izanen da. Ondoko sekuentziarioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da ikuspegi hau sartzen
- ▶ Maila baxua: ikuspegi hau programazioan sartzen da, baina irakasle bakoitzaren hautuaren araberakoa da. Esan daiteke unean uneko eta borondatezko jarduera dela irakasleendako.
- ▶ Maila ertain baxua: bada ikuspegi hau zikloan, departamentuan eta abarretan sartzeko planteamendua, baina egiazkoa baino teorikoagoa da.
- ▶ Maila ertain altua: bada ikuspegi hau zikloan, departamentuan eta abarretan sartzeko planteamendua eta haren ikuspegia praktikoa eta benetakoa da. Ikasgelan lantzen da.
- ▶ Maila altua: aurrekoa modu orokorrean aplikatzen da ikastetxe guztian.

4.- Antolaketa neurriak (koordinazioak, taldekatzeak...).

14. adierazlea. Koordinazioa zikloan, kurtsoan, departamentuan, etapan, etapa artean, etab.

Ondorio positiboak lortzen dituen neurrietako bat koordinazioa da. Aukera sorta zabala biltzen du: ikastalde berari eskola ematen dion irakasle taldearen koordinazioa, zikloaren eta departamentuaren koordinazioa, edota etapan arteko koordinazioa, oso faktore garrantzitsua (berezi Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzean). Ondoko sekuentziarioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: funtsean araudian datorrena egiten da; ez dago ezer ere berezi edo apartekorik alderdi honetan.
- ▶ Maila baxua: badira koordinazio neurriak, baina ez da berriaz esaten nolakoak diren edo esaten bada oso alderdi orokorrak lantzen dira.
- ▶ Maila ertain baxua: badira koordinazio neurri berriak eta zehatzak, baina ziklo edo departamentu batera, ikasmaita batera edo gehiagotara... mugaturik daude. Beraz, koordinazioak partzialak dira.
- ▶ Maila ertain altua: badira koordinazio neurri berriak eta zehatzak eta ziklo, departamentu, ikasmaita batean baino gehiagotan aplikatzen dira. Beraz, koordinazio partzialak dira, baina esanguratsuak ikastetxearendako.
- ▶ Maila altua: badira koordinazio neurri berriak eta zehatzak eta ia ikastetxe osoari dagozkio.

15. adierazlea. Taldekatzeak, aniztasuna eta porrot arriskuan dauden ikasleak hobeki hartzeko.

Eskolako problematika konplexua da eta horrek aholkatzen du antolaketako zenbait neurri hartzen. Ikastetxeek, beren autonomiaren barnean, hobekien baliatuko dituzten soluzioak esperimendatuko dituzte. Ondoko sekuentziarioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: funtsean araudian datorrena egiten da; ez dago ezer ere berezi edo apartekorik alderdi honetan.
- ▶ Maila baxua: bada taldekatze motaren bat, baina ez da zehazten nolakoa den.
- ▶ Maila ertain baxua: bada taldekatze motaren bat, baina antolaketa irizpidea soilik da ezarrita dagoena.
- ▶ Maila ertain altua: badira taldekatzeak. Sartuta daude antolaketa irizpideak eta zenbait irizpide pedagogiko, baina generikoak dira.
- ▶ Maila altua: irizpide pedagogikoak oso garaturik daude. Ondorio positibo eta kontrakoen jarraipen etengabea egiten da eta une oro aztertzen da zer den onena ikasle bakoitzarendako.

16. adierazlea. Errefortzuak antolatzea, aniztasuna eta porrot arriskuan dauden ikasleak hobeki hartzeko.

Eskolako problematika konplexua da eta horrek aholkatzen du hainbat eratako neurriak hartzea. Errefortzua da horietako bat. Ikasgelaren barnean eta modu batean baino gehiagotan eman daiteke; baita ikasgelatik eta eskola ordutegitik kanpo ere. Eskola errefortzu eta laguntzarako modalitateak ere askotarikoak dira. Ikastetxeek, beren autonomiaren barnean, hobekien baliatzeko aukera izanen duten soluzioak esperientiatuko dituzte. Ondoko sekuentziak edo gradienteak har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: funtsean araudian datorrena egiten da; ez dago ezer ere berezi edo apartekorik alderdi honetan.
- ▶ Maila baxua: bada antolatutako errefortzu eta laguntza motaren bat, baina ez da zehazten nolakoak diren.
- ▶ Maila ertain baxua: bada antolatutako errefortzu eta laguntza motaren bat, baina antolaketa irizpidea soilik da ezarrita dagoena.
- ▶ Maila ertain altua: badira antolatutako errefortzu eta laguntzak. Sartuta daude antolaketa irizpideak eta zenbait irizpide pedagogiko, baina generikoak dira.
- ▶ Maila altua: irizpide pedagogikoak oso garaturik daude. Errefortzu eta laguntzen ondorio positibo eta kontrako jarraipen etengabea egiten da eta une oro aztertzen da zer den onena ikasle bakoitzarentako.

5.- Tutoretzekin, balioekin, familiekin eta inguruarekin zerikusia duten neurriak (familien inplikazioa, inguruarekiko koordinazioa, lehenetsua izanen duten balioak...).

17. adierazlea. Ikasleen jarraipen pertsonalizatua, tutoretzaren bidez

Jarraipen pertsonalizatu, trinko eta jarraituak lagunduko du ikasle askok hobe ditzaten beren errendimendu-maila eta gaitasunen garapena eta ez soilik gaitasun intelektualak, baita emozionalak eta sozialak ere. Barne- zein kanpo-ebaluazioak lagungarriak dira eta arriskupean dauden ikasleak identifikatzeko eta, bereziki, jarraipen mota hau ezartzeko. Irakasleen eta familien inplikazio eta itxaropen handiak ezinbestekoak dira halako ikasleei laguntza emateko. Ondoko sekuentziak edo gradienteak har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: tutoretza planeko neurri arruntak sartu dira, baina ez dago haiek hobetzeko inolako jardura berriazkorik.
- ▶ Maila baxua: tutoretza planeko neurri arruntez gainera, jarraipen pertsonalizatua eta gurasoekiko komunikazioa bultzatzen dituzten neurriak proposatzen dira. Neurri horien izaera teorikoagoa da praktikoa eta benetakoa baino gehiago.
- ▶ Maila ertain baxua: proposatutako neurri berriak eraginkorrek dira eta praktikara eramaten dira, baina unean-unean edo modu sektorialean (zenbait tutoreren kasuan...).
- ▶ Maila ertain altua: neurri horiek ere modu orokorrean aplikatzen dira.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, irakasleek itxaropen handiak dituzte eta irakasle taldeak eta orientazio departamentua/HLTa inplikaturik daude.

18. adierazlea. Hezkuntza balioak lehenetsia

Zenbait balio esplizituki aukeartzea urrats garrantzitsua da ikastetxe guztiak eta familiek batera lan egin ahal izateko hobekuntzari begira. Gainera, ildo hori lantzeko eta sendotzeko neurriak ezarri gero, ondorioa biderkatuko da. Hezkuntza erkidego bakoitzak balio horiek ezarriko ditu eta balio horiek ikasleak pertsona hobeak eta solidarioagoak egingen dituzte, enpatia eta adimen emozional handiagokoak, eta inguruarekin eta gainerako pertsonekin arduratsuagoak eta adeitsuagoak. Gainera, eskola arrakastarekin zuzeneko loturirik handiena duten balioak kontuan hartuko dira: ahalegina, lana, iraunkortasuna, etab. Ondoko sekuentziak edo gradienteak har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: landu beharreko balioak oso modu orokorrean aipatzen dira
- ▶ Maila baxua: balioen definizioa handiagoa da, baina oso modu puntualean egiten da (ikasmaila bat, ziklo bat...). Ez dago horri lotutako inolako konpromiso bateraturik.

- ▶ Maila ertain baxua: badira aukeratutako balioak; bada planteamendu osotu bat, baina ez da balioekiko benetako konpromisorik hautematen.
- ▶ Maila ertain altua: aurrekoaz gainera, aukeratutako balioen ezarpenarekiko nolabaiteko konpromisoa dago.
- ▶ Maila altua: zuzendaritza taldeak eta hezkuntza erkidegoak konpromiso argia dute balio hauek lantzerakoan. Gainera, bada horretarako plan zorrotz eta koherentea.

19. adierazlea. *Ikasgelako bizikidetza eta giroa hobetzea*

Bizikidetza ezinbestekoa da ikastetxearen funtzionamendu egokirako. Eskola jazarpenaren aurrean zero tolerantziak ikastetxe guztien printzipioa izan beharko luke. Departamentuko plan instituzionalean ikastetxeetako prozesu hau biltzen eta laguntzen da. Ezin dugu ahaztu eskola giroa garrantzitsua dela klaseak modurik onenean eman nahi badira. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: bizikidetza lantzeko neurriak zein diren oso modu orokorrean esaten da.
- ▶ Maila baxua: neurrien definizioa handiagoa da, baina oso modu puntualean egiten da (ikasmaila bat, ziklo bat...). Ez dago horri lotutako inolako konpromiso bateraturik.
- ▶ Maila ertain baxua: badira aukeratutako balioak, bada planteamendu osotu bat. Hala ere, ez dago benetako konpromisorik balioekin eta hartutako neurriekin.
- ▶ Maila ertain altua: aurrekoaz gainera, bada nolabaiteko konpromisoa bizikidetza eta ikasgelako giroa laguntzeko neurriak hartu behar direkin.
- ▶ Maila altua: zuzendaritza taldeak eta hezkuntza erkidegoak konpromiso argia dute bizikidetza eta ikasgelako giroa lantzerakoan. Bada bizikidetza plan koherentea, eguneratua. Planaren neurrien jarraipena egiten da.

20. adierazlea. *Familiak seme-alaben hezkuntza prozesuetan inplikatzeari*

Ikasleen oinarrizko gaitasunak plan baten bidez hobetu nahi badira eta ikasleen eskola arrakasta handitu nahi bada, familien inplikazioarekin zerikusia duen neurriren bat sartu behar da (atal honetan ere sartuta dago GKEen parte-hartzea; prestakuntzarako eta familien laguntzarako prozesu honetan familia inguruari lagundu nahi dioten GKEez ari gara). Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: familiak inplikatzeko neurriak oso modu orokorrean aipatzen dira.
- ▶ Maila baxua: neurrien definizioa handiagoa da, baina oso modu puntualean egiten da (ikasmaila bat, ziklo bat...). Ez dago horri lotutako inolako konpromiso bateraturik.
- ▶ Maila ertain baxua: ikastetxean bada planteamendu koherentea. Hala ere, ez dago benetako konpromisorik balioekin eta hartutako neurriekin.
- ▶ Maila ertain altua: aurrekoaz gainera, bada nolabaiteko konpromisoa familiak eta GKEak inplikatzeko neurriak ezartzerakoan.
- ▶ Maila altua: zuzendaritzak eta hezkuntza erkidegoak konpromiso argia dute familiak inplikatzeko. Bada plan koherente bat eta guraso elkarteak eta laguntzarako gainerako instantziak inplikatzeko. Neurrien jarraipena egitea aurrez ikusita dago.

21. adierazlea. *Inguruarekiko koordinazioak (osasun etxea, oinarrizko gizarte zerbitzuak, udal liburutegia, eskolari lagun diezaioketen GKEak, boluntarioak, etab.)*

Maiz hobekuntza planak berarekin dakar eskolakoak ez diren instantziekin elkarlana egitea eta elkarlan horri esker hartutako neurrietako batzuk bultzatzen dira. Koordinazio ohikoenak dira, besteak beste, osasun etxeekin, oinarrizko gizarte zerbitzuekin eta boluntarioekin egindakoak. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: kanpoko instantziak inplikatzeko neurriak oso modu orokorrean aipatzen dira.
- ▶ Maila baxua: neurrien definizioa handiagoa da, baina oso modu puntualean egiten da (ikasmaila bat, ziklo bat...). Ez dago horri lotutako inolako konpromiso bateraturik.

- ▶ Maila ertain baxua: neurrien artean sartzen da kanpoko instantziekiko koordinazioa eta elkarlana izatea, baina ez benetako proiektu baten barnean. Formalagoa da benetakoa baino gehiago.
- ▶ Maila ertain altua: aurrekoaz gainera, bada nolabaiteko konpromisoa kanpoko instantziekiko elkarlanerako eta koordinaziorako.
- ▶ Maila altua: zuzendaritza taldearen eta hezkuntza erkidegoaren konpromisoa argia da kanpoko instantziekin modu koordinatuan elkar lanean aritzeko. Bada plan koherentea, kanpoko instantziak inplikatzeko dituen. Aurrez ikusita dago koordinazioen jarraipena egitea.

6.- Irakasleen irakasteko gaitasunak hobetzearekin zerikusia duten neurriak (prestakuntza ikastetxean...).

22. adierazlea. *Ikastetxeko prestakuntza, irakasleek irakasteko gaitasunak hobete ditzaten*

Errendimendua hobetzen da irakasleen irakasteko gaitasunak hobetuz. Hobekuntza planetan sartzen den neurrietako bat lotuta dago irakasleen prestakuntzaren antolaketarekin. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: irakasle bakoitzak parte hartzen du berak nahi duen prestakuntzan. Ez dago ildo komunik ez departamentuan/zikloan, ezta ikastetxean ere.
- ▶ Maila baxua: bada proposamen bat departamentuan/zikloan edo ikastetxean, baina irakasleek ez dute jarraitzen.
- ▶ Maila ertain baxua: bada proposamen bat departamentuan/zikloan edo ikastetxean, baina parte-hartzea formalagoa da benetakoa baino gehiago. Irakasleak ez dira inplikatzeko, noizean behin ez bada.
- ▶ Maila ertain altua: bada alde aurretiko diagnostikoa, ikastetxean egiten den prestakuntza mota zehazten duena. Bada proposamen bat, departamentu eta ikastetxe mailan. Parte-hartze maila ona da eta, oro har, prestakuntzarekiko motibazio- eta inplikazio-maila egokia da.
- ▶ Maila altua: zuzendaritzak eta departamentuko buruek/zikloko koordinatzaileek prestakuntzarekin duten konpromisoa argia da. Bada ikastetxeko prestakuntza plana. Motibazio-maila eta parte-hartze maila onak dira eta, gainera, prestakuntzan ikasitakoa ikasgelan nola aplikatzeko jakiteko jarraipena egiten da.

23. adierazlea. *Irakasle taldeen bilerak (departamentuen, zikloen, irakasle taldeen, "ad hoc" lantaldeen bilera), beren lana irakasteko gaitasunak hobetzearen ikusmoldeetik bideratuta*

Errendimendua hobetzen da irakasleen irakasteko gaitasunak garatuz. Hobekuntza planetan sar daitezkeen neurrietako bat da ikasgelako eta ikastetxeko egunerokoari eta irakasle taldeak lanpostuan egindako hausnarketari lotutako prestakuntza. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: irakasle bakoitzak bere kasa egiten du gogoeta, besteekin partekatu gabe.
- ▶ Maila baxua: ez dago deus planifikaturik, nahiz eta jakin zenbait irakasle jardunbideak eta gogoetak elkarrekin partekatzen dituztela, hori bai modu anekdotikoan eta ez sistematikoan.
- ▶ Maila ertain baxua: bada horretarako antolaketa proposamen bat: esate baterako, departamentu didaktikoen edo zikloen lan planean, baina ez dago egiazaturik zer egiten den bertan. Irakasleen arteko trukea bada, modu informalean.
- ▶ Maila ertain altua: bada horretarako antolaketa proposamen bat: esate baterako, departamentu didaktikoen edo zikloen lan planean. Egiazaturik dago zer egiten den bertan. Esperientziak, materialak, bibliografia, baliabideak, ideiak, hausnarketak, etab. irakasleen artean trukatzeko aldeko giroa dago.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zuzendaritzak sendo darama buruzagitza pedagogikoa eta irakasle bakoitzaren irakasteko gaitasunak hobetzeko konpromisoa oso bereganaturik dauka. Zuzendaritza taldeak edo haren izenean beste norbaitek (kaltitatearen arduraduna, orientatzailea, unibertsitateko aditua...) ikasgelak bisitatzen ditu eta gero lan saioa egiten du irakasleekin.

III.- BILAKAERA ETA EMAITZAK

Hobekuntza plan bat ezin da baloratu lortutako emaitzak kontuan hartu gabe. Emaitza hauek bi motatakoak dira: alderdirik akademikoenei dagozkienak (barneko emaitza akademikoak eta kanpoko ebaluazioak), eta bestetik, azturei, jarrerei eta balioei lotutako alderdiei dagozkienak. Gainera, komeni da azterketa historikoa egitea, emaitza horiek denboran zehar konparatuz eta emaitza horien bilakaera aztertuz.

7.- Egiartzatzen ari dira hobekuntzak emaitza akademikoetan eta ebaluazio diagnostikoan?

24. adierazlea. Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen eta emaitza akademikoaren bilakaera egiaztatze sistema eta motibazioa

Ikastetxe batek bere errendimenduaren bilakaera aztertzeko sistema eragile bat eskura duenean, dela ikastetxetik kanpoko proben bidez edo proba estandarizatuen bidez, dela barneko kalifikazioen bidez, bere hobekuntza planen benetako eragina egiaztatze balio handiko tresna du eskura. Ondoko sekuentziarioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: irakasle bakoitzak ebaluazio diagnostikoen eta kalifikazioen emaitzen gainean bakarka egiten du gogoeta, beste inorekin partekatu gabe.
- ▶ Maila baxua: ez dago deus ere planifikaturik, nahiz eta egiaztaturik egon zenbait irakaslek ebaluazio diagnostikoen emaitzen eta kalifikazioen gaineko gogoetak elkarrekin partekatzen dituztela, bereziki ebaluazio diagnostikoei ukitutako irakasleek.
- ▶ Maila ertain baxua: bada horretarako antolaketa proposamen bat; bada irakasleen artean nolabaiteko sentikortasuna, nahiz eta gogoetak gehiago lotzen zaizkien ikasleen arrakastaren edo porrotaren kanpoko zergatieri eta ez horrenbeste barne-zergatieri. Ez dago zuzeneko loturarik gogoeten eta hobekuntzarako neurrien artean.
- ▶ Maila ertain altua: bada horretarako antolaketa proposamen bat; txostenak eta grafikoak, historikoarekin, aurkezten dira eta baterako gogoetak egiten dira, ikastetxe mailan, emaitzen gainean (probak ikasmaila jakin batean egiten badira ere, ikastetxe guztiak konpromisoa du bere emaitzekin). Berdin egiten da barne-kalifikazioekin.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zuzendaritzak sendo darama buruzagitza pedagogikoa eta ebaluazio horien emaitzen hobekuntzarekin konprometiturik dago. Bada eremu horiei loturiko adierazle sistema, baita haiek eguneratu, aztertu eta haien gaineko proposamenak egiteko arduradun bat ere.

8.- Egiartzatzen ari dira hobekuntzak ikasleen aztura eta balioetan?

25. adierazlea. Ikasleen azturen, balioen eta jarreraren hobekuntza egiaztatze sistema eta motibazioa

Ikastetxe batek ikasleen azturen eta jarreraren hobekuntza aztertzeko sistema eragile bat eskura duenean, bere hobekuntza planen benetako eragina egiaztatze balio handiko tresna du eskura. Ondoko sekuentziarioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: irakasle bakoitzak bakarka egiten du gogoeta ikasleen azturen, jarreraren eta balioen gainean.
- ▶ Maila baxua: ez dago deus planifikaturik alderdi hau egiaztatze, nahiz eta jakin zenbait irakaslek beren ikasleen azturen, jarreraren eta balioen gainean gogoetak elkarrekin partekatzen dituztela.
- ▶ Maila ertain baxua: bada horretarako antolaketa proposamen bat; bada irakasleen artean nolabaiteko sentikortasuna, nahiz eta gogoetak gehiago lotzen zaizkien kanpoko zergatieri eta ez horrenbeste barne-zergatieri. Ez dago sistematizaziorik azturen, jarreraren eta balioen gaineko datuak biltzerakoan.
- ▶ Maila ertain altua: bada horretarako antolaketa proposamen bat; emaitzak aurkezten dira eta ikasleen azturen, jarreraren eta balioen gaineko gogoeta bateratuak egiten dira. Bada sistema bat hezkuntza alderdi hauen gainean informazioa sistematikoki biltzen duena.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zuzendaritzak sendo darama buruzagitza pedagogikoa eta azturen, jarreraren eta balioen hobekuntzarekin konprometiturik dago. Bada eremu horiei loturiko adierazle sistema, baita haiek eguneratu, aztertu eta haien gaineko proposamenak egiteko arduradun bat ere.

IV.- JARRAIPENA, BALORAZIOA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Atal honetan hiru alderdi oso garrantzitsu hartu dira kontuan. Lehenik, hobekuntza plana zenbateraino ezartzen ari den jakiteko adierazleak ditugu. Beraz, jada ez da dokumentazio hutsa soilik aztertzen, urrats bat gehiago egiten da eta hura errealitateari aplikatzen zaiola egiaztatu nahi da. Bigarrenik, eta aurrekoarekin loturik, zuzendaritzak egindako balorazio-motari buruzko adierazleak sartzen dira. Azkenik, eta zirkulua itxiz, hobekuntza proposamenak sartu direla egiaztatzen duten adierazleak ditugu.

9.- Zuzendaritzak plana jarraitzea eta baloratzea

26. adierazlea. *Plana aurrez ikusitako egutegiaren arabera garatzea*

Adierazle honek planaren ezarpenarekin du zerikusia; alderdi hori kontuan hartu da hobekuntza planean sartutako neurrietako bakoitza baloratzekoan. Hori hala izanik ere, hemen ikuspegi osotuagoa izan nahi da. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez dago inongo ebidentziarik.
- ▶ Maila baxua: ebidentzia bakarra arduradunek ahoz esandakoa da; ezin da ebidentzia gehiagorik bildu.
- ▶ Maila ertain baxua: arduradunen ahozko ebidentziak agiri bidezko edo bestelako ebidentziekin froga daitezke, parte batean bada ere.
- ▶ Maila ertain altua: badira agiri bidezko edo bestelako ebidentziak, planeko neurrien ezarpen-maila baloratzeko balio dutenak.
- ▶ Maila altua: gainera, badago feed-back-a biltzen ari den informazioaren eta beharrezkoa den doitzearen artean.

27. adierazlea. *Aurrez ikusitako jarduera eta neurri bakoitzaren garapenaren trazabilitatea, plana benetan hedatzen den edo noizbait eteten den egiaztatzeko.*

Zenbait hobekuntza neurriren eraginkortasuna baloratzekoan garrantzitsua da tresnak eskura izatea neurri horiek ezartzen ari diren aztertzeko eta prozesua zein unetan eteten den jakiteko. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez dago aurreikuspen, prozedura eta ebidentzia bakarrik ere.
- ▶ Maila baxua: badago aurreikuspena, baina prozedura bakarra haxe da: arduradunen ahozko informazioa ez oso modu sistematikoan biltzea. Ezin da ebidentzia gehiago bildu.
- ▶ Maila ertain baxua: badaude aurreikuspena eta prozedura, baina ez dago oso sistematizatua. Arduradunen ahozko informazioak agiri bidezko edo bestelako ebidentziekin froga daitezke, parte batean bada ere.
- ▶ Maila ertain altua: prozeduraren barnean sartzen dira agiri bidezko eta bestelako ebidentziak, jarduera bakoitzaren garapen-maila baloratzeko balio dutenak. Hala ere, prozedura ez da oso zorrotza.
- ▶ Maila altua: bada alde zehatzetik ezarritako prozedura zorrotz bat, azterketa hauek trazabilitatearekin egiteko. Gainera, bada azterketa hauek egiten dituen arduraduna.

28. adierazlea. *Hobekuntza planean aurrez ikusitako helburuen egiaztapena*

Neurriak ezartzeaz gainera, egiaztatu nahi da neurri horiek eraginkorrak izan ote diren, helburuetan agertzen ziren bezala. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez da helburu bakar bat ere lortu eta ez dago inolako ebidentziarik.
- ▶ Maila baxua: helburuetako bat edo bi lortu dira; badira helburu horien ebidentziak.
- ▶ Maila ertain baxua: helburu aski lortu dira eta badira horien ebidentziak.
- ▶ Maila ertain altua: ia helburu guztiak lortu dira eta badira horien ebidentziak.
- ▶ Maila altua: helburu guztiak lortu dira eta badira horien ebidentziak.

10.- Zuzendaritza taldearen balorazioak: ikastetxeko jardunbiderik onenak eta indarguneak.

29. adierazlea. Balorazio egokiak eta oinarrituak hobekuntza planaren, haren ezarpenaren eta zuzendaritza tadeak plana garatzeko egindakoaren gainean.

Hobekuntza neurri sortaren eraginkortasuna baloratzekoan, garrantzitsua da zuzendaritza taldeak bildutako informazioan oinarritutako balorazioak egitea. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez dago baloraziorik eta, baldin badaude, funsgabeak edo iritzi soilak dira.
- ▶ Maila baxua: zuzendaritza taldeak balorazioak egiten ditu, baina oso orokorrak dira.
- ▶ Maila ertain baxua: zuzendaritza taldeak balorazio zehatzak egiten ditu, nahiz eta agiri bidezko euskarririk ez duten.
- ▶ Maila ertain altua: zuzendaritza taldeak oso balorazio egokiak egiten ditu; zehatzak dira eta datu eta informazio objektiboetan oinarriturik daude.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zuzendaritza taldeak buruzagi rola hartzen du eta beste batzuek egindako ideiak eta iradokizunak biltzea sustatzen du, balorazio zehatzagoak egin ahal izateko.

11.- Hobekuntza proposamenak

30. adierazlea. Hobekuntza proposamenak izatea, epe labur eta ertainean

Hobekuntza planak etengabe hobe zezake aukera hau kontuan hartu behar luke, bikaintasuna bilatzeko tresna modura. Esperientziatik ikasiz gero, hobekien dabilena indartuko da eta aurrez ikusitako emaitzak lortzen ez dituenak doitu da. Ondoko sekuentziazioa edo gradientea har daiteke erreferentzia modura.

- ▶ Gutxieneko maila: ez dago hobekuntza proposamenik edo daudenak funsgabeak dira.
- ▶ Maila baxua: zuzendaritza taldeak hobekuntza proposamenak egiten ditu, baina oso orokorrak dira.
- ▶ Maila ertain baxua: zuzendaritza taldeak hobekuntza proposamenak ekar ditzake; zehatzak dira, nahiz eta ez zaizkien estu lotzen ezartzen ari diren neurriei (ideia berriak dira).
- ▶ Maila ertain altua: zuzendaritza taldeak oso balorazio egokiak egiten ditu; zehatzak dira eta benetako informazioetan eta datu objektiboetan oinarriturik daude.
- ▶ Maila altua: aurrekoaz gainera, zuzendaritza taldeak buruzagi rola hartzen du eta ideiak eta iradokizunak biltzea sustatzen du, hobekuntza proposamen zehatzagoak egin ahal izateko.

Alderdi bakoitzaren balorazioak egiteko baliokidetasun taula

Maila	Puntuazioa
Gutxieneko maila	1
Maila baxua	2
Maila ertain baxua	3
Maila ertain altua	4
Maila altua	5